

Beñat Etxebarria Athleticeko jokalariai alkarrizketea

11. orrialdea

Pala modalidadea eskeiniko dabe pelota eskolak

Areatza, Dima eta Zeanuriko Pelota Eskolak pala be eskeiniko dabe aurten neska frontoira erakarteko. Izan be, eskupeletoa mutilen artean arrakastatsua izan arren, sano neska gitxik jokatuten dabe modalidade honetan. **10. orrialdea**



Izena emon daiteke 2013-2014 ikasturteko ikastaroetan

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

192

2013ko urri lehenengoaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiarrak behar bila


Lanbidek emondako abuztuko datuak Arratian azken hile honetan langabeziak gora egin dauala erakusten dabe.

Aprilean punturik altuena hartu eta hurrengo hileetan jeitsi bazan be, abuztuan gora egin dau barriro langabeziak.

Lan bila dabizen gizonen % 44 eta andren % 77 zerbitzuetan dabiz lana bilatu guran. Izan be, ostalaritza, garbiketak, zaintzak, merkataritza edo administrazioak, pisu handia daukie Arratian eta lanpostu asko sortzean ditue gizarte garatueta.

Industriako lanpostu asko galdu dira eta burrukan jarraituten dabe beharginak "industria ehuna suntsitu ez daiten". 2008tik hona, Arratiako 11 enpresak zarratu dabez ateak, beharginak kalean itxiz. Momentu honetan, burruka gogorretan dabiz Prefabricados Lemona, Alfus eta Incoesa. Zerbaki hau zarratutera, Ertzaintza Incoesan egoan Bediako lanlekua hustutzea oztopatu gura eben beharginak bertatik ateraten.

la galduta egoan lehen sektoreak bultzadea izan dau azken urteotan eta "gazteak eta andrak animau dira eredu barriakaz esplotazioak marxtan ipinten" Sonia Ingunza, Igitiekoaren arabera. **8. eta 9. orrialdeak**



Lan eskatzaileak adin eta sexuaren arabera.

ARTEA

Baserriko produktuak MerkArtean

Hilaren 21ean izango dan MerkArtea janari eta artisau azokeak hogeitau urte beteko ditu. Berrogeta hamar erakusmahai ingurutan baserrietan ekoiztutako frutea, gaztaia, ogia eta ortuariak egongo dira, beste jateko batzuen artean. Eskuz egindako beste produktu batzuk be egongo dira artisau azokan. Erakusmahaiak, frontoian, eta frontoi eta udalaxe inguruan egongo dira. Gaubean Gontzal Mendibilek kontzertua eskeiniko dau, bederatzitertietan izango da plazan eta ostean jantzaldia egongo da. **5. orrialdea**

IGORRE

Kantuan Inbiu Euskera Egunean

Hamaikagarren Inbiu jaialdia, hil honen 21 ean izango da eta CD-DVDaren aurkezpenagaz hasiko da Euskerearen aldeko Eguna Igorren, goizeko 12:00etan. Euskera Planekoak beharrean ibili dira Euskera Egunean aurkeztuko dan CD-DVDa dala-eta, Igorreko kultur eta kirol taldeen parte-hartzeagaz osotu dabe berau. Aurkezpenaren ostean bazkaria egongo da eta gero kantu saioa. Egunari amaierera emoteko Jokaldi erromeria taldeagaz gozatzeko aukerea egongo da eta 20:00etan txokolatea emongo dabe Beinke! Merkatarien Euskera Taldekoak. **5. orrialdea**

BEDIA / LEMOA

Incoesan Ertzaintza, Prefabricados greban

Urri lehenengoaren 17an, Bediako lantokia hustutzeko kamioiak eta Ertzaintza agertu ziran. Ertzaintza hainbat behargin atxilotzen egoala jakinarazo eutsan BEGITURI Juankar Vizan LABekoak aldizkaria inprentara bidean joiala.

Prefabricados Lemonako beharginak, barriz, greba mugabakoan hasi ziran hilaren 12an. CRHK fabrika hau zarratu eta beharginak kaleratzeko prozedura hasi dau eta. **6. orrialdea**

A SESOREAK
basolo Emaldi
FINKEN ADMINISTRATZAILEA
Abokatua

LEHENENGO URTEKO KUOTAN %15eko DESKONTUA

620.57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri



IGITIE

LURRA ETA ETXEBIZITZA

Urte bat daroa Igitiek beharrean, astiro-astiro bere zereginean. Hasierak beti dira gogorak, baina bideari ekin egin behar jako, pausu bat eta pausu bi, eta horretan gabiz fin. Gure beharren inguruko eztabaidak luzeak dira, behar bada batzuetan gure berba jarioen zurrumbiloen galdu egiten gara. Egia da gauzak ez doguzala beti ondo egin, nahiz eta gure asmo onenak gabizan. Gu be ikasten gabiz. Baina ekimen txukunak be egin doguz, eta horreetako bat da LUESI baseritarren lurren defentsarako taldearen sorrera.

LUESI erreka-bazterretan erreka lurra eroan ez daian egiten dan lubana da, lur apur batez

eta hesi begetal batzuk ipinita. Irudi honegaz adierazo gura da galtzean gagozan lur emonkor eta produktiboa defendatzeko asmo tinkoa dogula, elikadura burujabetzearen bidean lurrak jagotea ezinbestekoa dala, komunitadearen beharizan oinarritutako asetzeko lurrak berreskuratzea danon ardurea dala, baseritarrena, instituzino publikoena eta gizartearena orokorrean.

LUESIren lana isila izan da orain arte, lan ildoak finkatzen eta adosten ibili da eta. Bere asmo nagusiak bi dira: herriz herri nekazari eta abeltzain barrien eskuragarri izango diran lur-boltsak sortzean joatea eta autokontsumorako ortu-

sozialak bultzatzea.

Diman jadanik sortu da ortu-sozial bat, eta Igorren eta Lemoan egitasmo hau lantzean dabiz momentuz. Hemendik LUESIk Arratiako gainontzeko herriai antzeko bidean lan egin dagien konbitea luzatu gura deutse.

Eta lur-boltsak dirala-eta Zeberio herriaren egitasmo adoretuaren barri emon gura geunke. LUESIk argi dauka lurra etxebizitzegaz estu lotuta dagoala, baseritarrak solotik hur egon behar daua. Hau errezteko, lurrak heritik hur egotea komeni da, edo bestela baserriak ustiatzearen parte izan behar dau. Etxeen alokairua eta lurrena lotuta doaz beraz. Eta hemen instituzinoen inplikazioa ezinbestekoa da.

Zeberio Udalak lehenengo

sektorea bultzatzeko proiektu aita-garria ipini gura dau martxan. Aurreko legealdietako higiezin burbuilaren barruan 5 apartamentu ereigi ziran eskola zaharretan, eta 6 urtez etxe hutsen mamuak bete ditu eraikinok, triste gorian. Oraingo udal taldeak, Diputazioagaz berba egin ostean, ebatzi kementsua hartu dau: udalak berak kudeatuko dauan lur-boltsa sortzea elikadura burujabetzearen bidea indartzeko, eta hori ahalbidetzeko eta errezteko etxe hutsak nekazari barrien eskura jartzea. Lurrak inguruko baseritarren laguntzaz bilatu ditue, eta proiektuaren arabera handiagoak edo txikiagoak izango dira. Lurren alokairua gitxienez 10 urterako dabiz negoziatan (beti be HAPOri jarraituz). Alokairuaren zenbatekoa nekazariaren eta

lur jaubearen artean adostuko da (alokairu sozialak beharko dabe izan, duinak). Udalaren inplikazio politikoa argia da, alokairuaren abal gisa aurkezten da eta.

Gure aldetik uste dogu hau dala bidea, eta ekimen hau inguruko herrietara zabaltzeko gure eskura dagoan guztia egingo dogula adierazo gura dogu.

Zeberio Udalak bere proiektua azaltzeko eta lantzeako topaketak antolatuko ditu hilaren 20an eta 21ean, bertan lehenengo sektoreko esperientzia desbardinak aurkeztuko dira nekazari-tzan eta abeltzaintzan gaur egun dagozan aukerak ezagutzeko. Interesauta dagozan herritarrak eta hautetsiak bertaratu daitezcan animau gura geunkez. Lur barik ez dago barbarik.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urri lehenengoaren 16tik 22ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Urri lehenengoaren 23tik 29ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Urri lehen. 30etik urri biga. 6ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01
Parketxea
94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51
Gorbeialde Irratia
94 631 52 90
Trenak
Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.
Orduru: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.
Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.
Zeberio-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.
Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.
Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.
Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iratiz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.600 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Maltsin



Beste persona baten gainean txarto, era txarrean edo okerrean berba egiten dauanean batek, maltsina dala esaten da. Arratian beste era honeetara be esaten da: maltzin eta mantzin (maltzine, mantzine, maltzine, agoskatuta). Maltzurkeriak, gorrotoak edo doilorkeriak maltsindu egiten dau personea. Bibliari jarraituz, esaterako, Judas Apostolua maltsina izan zan, Jesukristoren kalterako egin ebalako.

ERETXIA

Emon dagiogun bide ametsari

Hasikera guztiak lez, ikasurte barri batek bildur ugari pilatzen deuskuz motxila barrian, ohikoa da, neurri baten, etor daitekean edo ezagutzen ez dogun gauza baten aurrean holango sentimentuak pilatzea.

Izan be ikasurte barriak, urteroko eginkizunez aparte, askotariko zalantza, buruhauste eta lana pilatzen dau. Eskola komunitadearen barruan egozten diran arazo, funtzionamentu, ikasleen garapen, hartu-emon, proiektu, jarkera... zein balioen lanketeari jagokozanak esaterako.

Dudarik ez, ardatz nagusia, umeen ongizate eta garapen integralaren norabidean kokatzen dogu eta bide hau auzolan konpartidua da, familia eta herriko beste eragileakaz batera.

Nire ikuspuntutik, ikastetxeak daukan zeregin garrantzitsuena, alde guztien arteko lan komun hori harmonizatea, era baikor eta ilusino handiagaz alkarlana egituratu, osatu eta bideratzean datza. Beti be guztion arteko hausnarketa eta eretxiak kontuan hartu eta ebatziak partekatuta.

Beraz, gure funtzino eta zereginetan hartu-emonak egoki bideratzearen ildo berean parte hartzea ezinbestekoa da, bai ume, guraso eta eragileen parte hartzea. Ikasleak ez ezik guztiok aberasten gaituelako. Gehiago oraindino, aniztasunaz baliatu behar dogu, desbardinaren planeta honetan bardinen arteko hartu-emon eta eskubideen kulturea garatzeko, nor norbera izanik egungo gizartean akordioetara heldu eta erantzukizunez jokatu eta ebatziak hartu ahal izateko.

Zelan ez, emozino, sentimenduen errekatxoak askatzeko laguntza beharra dogu, eta gu horixe gara, laguntzaile! Laguntzaile bizitzaren aldera pausuz pausu abiarazoteko. Ikasleak maitatu, tresna, trebetasun eta autono-



AINHOA BARIAETXABURU ZARANDONA

Dimako eskolako zuzendaria

miaz dohainduz.

Bide beretik, eskolako leihotik ingurunera begira nagoanez, derri-gorrez aitatu behar, bardinen arteko laguntzak ahalbideratzean kokatzen dirala gure pedagogiaren estrategia eta praktikak; bakotxaren abiapuntutik modu aktiboan esperientziak eta bizitzarako balioak, gaitasunak buztartu eta ereigiz.

Amaitu aurretik, eskertzea besterik ez dot, persona asko dira eta, hau guztia posible egiten laguntzen dabenak, irakasle, ikasle, langile, guraso, herritar, udal eta erakundeetako ordezkariak... guztiai nire eskerrak hainbeste gauza erakutsi eta apoiatzearen. Eskerrik asko ulertu, erakutsitako afektu, pazientzia eta une latzetan energia ziztatzeagaitik; Eskerrik asko bide konpleju eta inoz noraezean be zeregin honetan lagundu eta bidea konpartitzeagaitik.

Bildurrai aitamena eginez hasi naz, barruraino sartzean diralako eta gero gauaren erdian ateratzen diralako ametsgaizto baten, ba heldu jaku amets egiteko tenorea, sortu daiguzan umeentzat guneak, manipulazino eta esperientzia guneak, kontura gaitzean umeen behar eta nahietaz...

Beraz, emon dagiogun bide ametsari eta ongi etorri ikasurte barrira!

LUMATUTEN



LEIRE ORUE

Izerdi patsetan

Uri lehenengoko haize fresko eta iluntze arinakaz badator gorputza martxan ipinteko sasoia, udako oilasko erreak eta kalimotxoak ur tanta gaziak bihurtuteko erronka latza eta garratza.

Arratiko neskak be fraka txiekitan jantzita aurrendenporaldiari hasikerea emon deusie hilaren hasikeran. Eta joana joan bada, geroa etorriko da esaten dauanik be badago eta taldean agurren bat eta ondo etori batzuk be egon dira. Gaztetxoek freskurea eta helduen esperientzia alkartuta betiko maila onean baloia jokoan ipinteko prest dagoz honezkero neskak.

Naia Bilbao eta Urtzi Ortuzarren gidaritzapean hor dabiz neskak egunotan Arratiako maratoni txikian: San Kristobal, Dima, Arantzazu... herria eta kirola buztartuten.

Aldats gora eta aldats behera, inoz zelai lauetan galapan egiterik eukiko daben esperantzaz... Baina "ez da hormarik graffitirik barik" dino EH Sukarra taldearen letra

batek, eta ez dago aurrera egiterik ilusino eta gogo barik. Eta taldearen barruan zeozer amastuten bada hori da konpromisoa, gogoa eta ilusino.

Sari askotan jokoan hasteko fraka txikiak eta botak janzteak ez da nahikoa izaten eta hor azpimarratuko neuke euren balioa. Arratia mailan Euskal Ligarako taldea osotutea ez da erreza eta kanpoko jentea bertaratutea be ez. Baina holango persona talde bategaz ilun dagoana errez koloreztatu ahal da.

Sari askotan bide okerretan egindako galapaldietan min hartu dozue eta ulergarria izan da baten baino gehiagotan galapan egiteari itxi gura izana baina, "nongoak gara ba?" aitaturtea besterik ez dozue behar izan bidean aurrera egiteko.

Laster baten zelairatuko dozue baloia Euskal Ligan talderik indartsuenen kontra, ez da hasikera goxoa izango baina gure bailarako lema zabalduko dozue Euskal Herri zehar: izan be txikerrak baina gogorrek zarie eta!

Ur tanta gaziak poztasunak erangindakoak izan daitezala eta ur tanta gazi guztiak zelaian alkartu daitezala eta ez zelaitik kanpo.

Eutsi eta zorte on denporaldi barrian, neskak!

Eta Pheyremans taldearen bai-menagaz:

Zuontzat dira idatzi honen le-roak, zuontzat be besarkada be-roena.

Zuontzat be nire mirespen guztia, nire mirespen guztia!

1, 2, 3 ARRATIA.

ZERTZEAN



AINHOA MENDIA

1

Danak batera, danak eskutik danak aurrera begire. Danan ametsa bardine dala urrinetik nabari de borrokarako gogoa eta inder asko batu dire ia ba holan, heltzean garen danok independentzire!

2

Kataluñarrak gogotsu doz pausuz pausu aurrerantza giza katea egin daurie harantza eta honantza hainbat ekintza, manifa eta baita be, lora eskaintza orain be ezta txikie izin emon daurien urratsa.

Gaia jarrita: "Diada"

3

Larehun ta piku kilometrotan danak eskutik helduta Ciutadella, Camp Nou ta hainbat leku eukezan hartuta inder askogaz milaka herri, danak egozan batuta egin daurie euren herrie ikusteko askatuta.

4

Horrenbesteko inderra ikusi eta batzuk bildurtute ta "Cataluña sera España" esanez, hara sartute gure eurien dana zapuztu ultrak hara agertute herriek deko eskubidea ikusteko askatute!!!

5

Ikurrin eta banderolakaz gureak be handik tire hemetik kanpo dagozalako presoak hona begire horrik danak be gure moduen hemen egongo balire momentu hontan gauze guztiak asko aldatuko dire.

6

Eta gurean lortuko ete da helburu hau betetea? Kontzientziaute eta gogotsu al dau ba hemen jentea? Ezan ba, bape txarto egongo inder danak batutea behingorren be Euskal Herrie iteko independentea!!

BEGI TXINDORRA

Korsarioen herritik (Saint Malo) bialdu deusku irudi hau Maribel Calvok. Itsasontzi handi baten brankako irudi bitxia. Eskuan ez-pata daukala, ekintzarako prest dago pirata hau: bildur barik, aurrera begira, itsaso bare zein zakarreen, eguraldi onagaz zein denporaleagaz barkuaren norabidea markauko dau.

Jarkera horregaz egingo deusagu aurre ikasturte barriari eta uda-goien gorriari. Eta horretarako prestatzeko, ron tragu batzuk Nafarroako landetxe baten hartzea modu ona da, duda barik. Hurrengo BEGITUN argazki lehiaketaren epaimahaiaren ebatzia emongo dogu. Ondino, dana dala, egun batzuk daukazuez, hilaren 25era arte, zuen argazkiak bialtzeko eta sari eder hori eskuratzeko.

Axularrek inoan "gero dinonak, bego dino", ez itxi biharko, eta bialdu zuen argazkiak lehenbailehen.

Gogoratu gehienez 3 argazki bialdu behar dirala begitu@topagunea.com helbidera.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Uriagaitza Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbako 101
R.F.S. 21/06

Olaetxe
OPTICA ZENTRILA
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiako tentsinoak
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ARTEA

Euskal Herri osoko baserriko produktuak MerkArtean

Hogei urte beteko ditu aurten, MerkArtea janari eta artisau azokeak. Hilaren 21ean izango da eta bertara ekarriko dabez Euskal Herriko herrialde guztietako baserriarrak euren produktuak.

Erredakzioa

Berrogeta hamar erakusmahai ingurutan baserrietan ekoiztutako frutea, gaztaia, ogia eta ortuariak egongo dira, beste jateko batzuen artean. Eskuz egindako beste produktu batzuk be egongo dira artisau azokan.

Euskal Herriko produktuak baina baita Arratiako bertako produktuak be egongo dira MerkArtean. Holan, batzuk aitzearran, Zeanuriko gaztaia, Igorreko frutea eta San Kristobaleko ahuntz gaztaia topau ahal izango dira bertan.

Erakusmahaiak, frontoian, eta frontoi eta udaletxe inguruan egongo dira.

Azoka ostean jaia

MerkArtea urri lehenengoaren hirugarren zapatuan izaten da. Batzuetan, beraz, Andra Mari jaien hurrengo astegienean izaten da, eta beste batzuetan, aurtengo moduan, astegioren bat egoten da tartean. Dana dala, herriko jaien inguruan izan ala ez, jaietako egitarauan sartu ala ez, jai eguna izaten da azoka eguna eta arrastian kontzertuak eta jantziak egoten dira berandura arte.

Aurten, kontzertua Gontzal Mendibilek eskeiniko dau. Kantari zeanuriztarrari entzuteko aukerea berderatzi t'erdietan izango da plazan. Kontzertu honen ostean jantzia egongo da.



Barazkiak merkaduan.

IGORRE

Inbiu 2013

Erredakzioa

Zapatuan, hilak 21, Igorreko alkarreak grabau daben CD-DVDa ikusi ahal izango da, 12:00etan Lasarte aretoko pantaila handian.

Oingoan, ikusten ez dan beharra ezagutu gura izan dogu, CD-DVDa egin ahal izateko egon dan lan teknikoa. Banbalinetan murgildu gara, eta Davib Antzuola "Fa" gaz, Igorreko Kultur Etxeko soinu teknikariagaz eta ikus-entzunezkoetan lizentziatua dan Imanol Garciagaz alkartu gara.

Zeintzuk izan dira emon dozeuzan lehenengoko urratsak?

"Fa": Euskera Planekoak eukien idea egingarria zan ala ez konsultau eusten. Baietza emonda, jarraitu beharreko pausuak zehaztu genduzan. Lehenengo lana, kanta herrikoiak aukeratzea izan zan, gero kanten melodia sortu ahal izateko. Kantak melodia, tonua eta eritmoari begira aukeratu behar izan genduzan; kontuan hartu, bersino asko dagozala eta hiru osagaiak bat egitea ez dala erreza. Gero kanten melodia sortu egin behar zan, eta Asier Ercillari esan jakon.

Imanol Garcia: Neuri be galde-tu eusten CD-DVDan marrazkiak sartzea posible ete zan eta hortik aurrera, fase desbardinak egon



Imanol Garcia.

dira. Lehenengoa, alkarreak prestatutako koreografia grabetea izan zan, alkarreak egindako ekarpenak jasoteagaz batera. Izan be, alkarreak batzuk koreografia oso ondo landuta ekarri eben eta marrazkiak egiteko gidoia nahiko zehaztuta.

Zelan bideratu dozeuz grabazio saioak?

I.G.: Marrazki digitalak egin ahal izateko goitik beherako oihal berde handi bat ipini genduan, eta jentea bertan kokatu behar zan. Gero betikoa 1, 2, 3 eta grabau, ondo urten ezker, holan gelditzen zan, bestela barriro grabau behar zan. "Fa": Imanolek aitatu dauan oihala ondo ipintea zan lehenengoko beharra, ezin zan eta zimurrik geratu. Gero abotsa grabetako mikrofonoak prest itxi eta abotsa grabau. Holan ibili ginan lau egunetan. Euskera Planeko kideen laguntzea euki dogu, alkarreko kideak kokatu eta grabazioa behar dan moduan bideratuteko.



David Antzuola "Fa".

Ze fasetan zagozie orain?

"Fa": Abotsen grabazioa formatu zehatz batera egokitzen eta kantak eta abotsak nahasten.

I.G.: Kanta bakotxaren marrazkiak egiten nabil, letrea kontuan hartu eta istorioak sortzean; irudimena lantzean (barreak). Eta azken beharra irudiak eta musikea batzea izango da.

Zer nabarmendu gura dozeuz?

"Fa": Lan handia izan da, halanda be, herriko jentegaz behar egitea gozamina da, parte hartzean dabela ikustea, euskerearen aldeko jarrera egotea, horixe nabarmenduko neuke.

I.G.: bai, poztutekoa da herriko alkarreak euskerearen aldeko egunean parte hartzeako erakutsi daben prestutasuna, eta alderdi profesionaletik, oso lan interesgarria izan da niretzat, lehenengo aldia da ordenadore bidezko irudi digitalak egiten dodazala, eta asko ikasi dot.

ARRATIA

Gizonezkoentzako bardintasun tailerra

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak, Gizonduz programea aurkeztuko dau tailer baten bitartez, hilaren 26an. Mankomunitatearen egoitzan izango da, arrastiko 16:00etatik 18:00etara, Arratiako gizonai zuzenduta. Bertan, andren eta gizonen arteko desbardintasunaren jatorria eta gizon

izateko eredu barriak landuko dira. Interesatuak hilaren 23a baino lehen emon behar dabe izena Bardintasun Zerbitzura deituta edo berdintasuna.arratia@bizkaia.org helbidera idatzita.

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, Emakundek bultzatua, eta bere helburua andren eta gizonen arteko bardintasunaren alde gizonak kontzientzia, inplikatu eta euren parte hartzea sustatzea da.

ARRATIA

Zeanuritik Bediara oinez erreka baztarretatik

Erredakzioa

Hilaren 16tik 22ra Mobikortasunaren Europako Astea eta "Aire garbia, horixe da zure mobimentua" lelopean, aire garbiaren alde mobiduteko beharra gogorarazo gura dabe erakundeak. Arratiako Udalen Mankomunitateak, aurreko urteetan legez, Arratiako Ibaierretatik IV. Martxea antolatu dau hilaren 21erako. Arratia osoa oinez zeharkatzeko aukerea emoten dau martxeak, gure bailararen ardatza dan Arratia errekearen baztarretatik. Zeanuriko plazatik 09:30ean urtenda, lau bat ordu behar izango dabe ibiltariak Bediara

raino dagozan 20 km.ak egiteko.

Arratiako edozein herritatik kotxea hartu barik martxa honetan parte hartzeako, antolatzaileak autobusa ipini dabe. Bediatik urten go da 08:30ean, eta herri guztietatik pasauko da, baita Dimatik be. Martxea amaitutakoan be egongo da autobusa herrira bueltetako.

Kotxe bako eguna 22an

Aurten, kotxe bako eguna domekan izango da. Bediako Udalak, bizikletearen erabilera bultzatzeko, herritik zehar bizikleta ibilbidea eta bizikletak konpontzeko tailerra antolatu dauz. Partaideak bizikleta baten zozketan hartuko dabe parte.



Igazko martxea.

LEMOA

Prefabricados Lemona greba mugabakoan

Erredakzioa

Hilaren 12an hasi ziran greba mugabakoan Prefabricados Lemona beharginak. Cementos Lemona taldeko jaubeak, CRH talde irlandarrak, Prefabricados Lemona 35 beharginak kaleratzeko prozedura hasi dau. Enpresa honek eraikuntzarako produktu aurrefabrikatuak egiten ditu Lemoan eta Benaventen. ELA sindikatuak hiru ordezkari daukatzu enpresa honetan.

Aurtengo zezeilean CRH (Cement Roadstone Holding) akordio batera heldu zan Portland Valderribas-egaz eta Cementos Lemona taldeko akzino guztiak erosi zituan. Prefabricados Lemona, Cementos Lemona taldekoa da. Cementos Lemona gatazka hiru hilabete gehiago luzatu zan, CRHk ez zituelako gura Cementos Lemona kaleratuak hartu. Atzenean, Cementos Lemona kaleratuak berrartu zituan CRHk.

Orain Prefabricados Lemona plantilla osoa kaleratzea planteatu dau. "Gatxa da ulertzea ebatzi

hau, CRH taldeak etekin handiak zarratu dituean atzenean urte biak (600 milio baino gehiago urteko) eta akzinodunen artean dibidendu handiak bananduten jarraituten dauanean", salatu dau ELA sindikatuak.

Sindikatu honen arabera, "plantilla osoa kaleratu gura dabe eta enpresearen jarraipenerako euro bat be ez dabe inbertidu. Honek badira krisia gaintzeko eta industri-ehuna hobetuteko espero genduzan inbersoreak, prestatu gaitazan txarrenarako. Biltzaile diruzaleak baino ez dira, inbertiduteko ezelango asmo bakoak. Geure lanpostuen alde atzenera arte egingo dogu burrukan, eta enpresa praktika honek eta praktika honek babesten dituen politikak salatuko doguz".



DIMA

Herri kirolak, jantzak eta bertsolariak Axpe Goikoan

Erredakzioa

Obra amaituta, Axpe Goikoa jate-txea berrinauguretako jaia egingo dabe hilaren 28an. Su handi batek hartu eban arren jate-txea maiatzaren 5ean, honek ez zituan atek zarratu. Orain, Axpe Goikoa guztiz

konponduta eta barriztuta, afari berezia eta jaia antolatu dabe jaubeak.

Arrastiko 19:30ean, Andra Mari jantza taldea egongo da eta ostean herri kirolak eta bertsolariak. Gero kopautxoak: aitzoz ebagitako pernila eta kanapeak. Afariaren ostean, jantzaldia egongo da.

ARRATIA

Sanmigelak

Erredakzioa

Altzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre) eta Uriben (Zeanuri) dagoz San Migel izenpeko ermitak. San Migel eguna, hilak 29, domekea da aurtun.

Artean, parroko meza nagusia ermitara trasladauko dabe eta ostean barauskarria egongo da betiko moduan. Garben, jaia bezperan hasiko da, zapatuan, Tortilla Txapelketa bategaz eta gaubean erromeria egongo da. San Migel egunean, me-

zea, barauskarria eta umeentzako puzgariak egongo dira. Zeanuriko Uribe auzunean, aurreko astegoienean ospatuko dabez sanmigelak:

Urri lehenengoak 21, zapatua
14:00etan auzo bazkaria.

17:00etan, Mus Txapelketa eta umeentzako ginkanea.

Urri lehenengoak 22, domekea
11:30ean mezea. Ostean barauskarria eta herri kirolak ume eta gazteen artean.

Urri lehenengoak 23, astelehena
Arimen mezea. Ostean barauskarria. **17:30**ean txokolatea, txixi-burruntzia eta sardina jana.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Igorre Kantari INBIU 2013

*12:00 Igorre kantari grabazioaren aurkezpena Lasarte aretoan.

*13:30 Kopautxoa.

*14:30 Herri bazkaria.

*16:00 Bazkalostean, kantu saioa.

*18:00 Erromeria, Jokaldi. AMEk antolatuta.

*20:00 Txokolatea **BEINKE** merkatarien euskera taldearen eskutik.

Jokaldi Kultur Etxeko Lasarte plazan txango da, eurte egn ezatara estalita sartzen.

Irailaren 21 ean



ZEBERIO

Nekazaritza sustatzeko jardunaldiak

Hilaren 20 eta 21ean, "Zeberio bere sustraietatik eraikiz" titulupean, Lehenengo Sektoreaz jardunaldiak antolatu ditu Udalak.

Erredakzioa

Helburua "eraldaketa nekazaritzan eta bizimoduan" da. Proiektu bidegarriak martxan ipinteko lurra eskuratu beharra dago eta, Udalaren Lur Funtza sortuko da horretarako.

Udalak, luraren erabilera eredu barria eta konsumo eta ekoizpen arduratsua bultzatu gura dauz. Hori dala eta, produktore eta konsumitzailean arteko loturak eta babesak, eta tokiko merkataritza sareak sortzea bilatuko dabe jardunaldiotan.

Lehen Sektoreari bultzada hau emon eta herriko garapena sustatzeko, Ermitabarriko gunea, urteetan zarratuta egon dana, erabiliko dabe.

Autoenplegua eta proiektu barriak

EHNE sindikatuko Unai Aranguerenek "zelan hasi autoenplegu

proiektu bat landa eremuan" gai hartuta, hasikerea emongo deutse jardunaldiak bere berbaldiagaz eta ondorengo barauskarrian, partaideak bertako produktuak dastatu ahal izango dabez.

Hurrengo egunean, "Gaurko

baserritarren proiektu barriak" titulupeko mahainguruan, Zeanuriko Malu Egiluz; Zeberioko Imanol eta Iñigo Larizgoitia; Arteako Aner Mimenza eta Ugaoko Txetxu Nuñez egongo dira euren proiektuak eza-gutzerara emoten.



ZEBERIO

Zerbitzu barriak martxan

Erredakzioa

Erropa erabilia eta etxeko beste gauza probetxagarriak jasoteko zerbitzu barria ipini dabe Zeberion. Sautuolabari auzunean, aparkaleku ondoan Udaltalde 21 Nerbioi Ibalzabalek ontzia ipini dau berrerabilpena sustatzeko asmoz. Bertan, ehun-hondakinak jasoko dira: jantziak, etxe-jantziak, boltsak, garrikoak edo oinetakoak, bestelako etxeko objektu probetxagarriak, jostailuak, liburuak, tresna elektriko eta elektroniko txikiak, bitxiak eta azoka-objektuak.

Podologia

Zeberioko Udalak herrian bertan podologo zerbitzua eskeiniko dau. Arrastietan izango da, astean egun baten, ondino zehaztu barik dagoana. Jente askok erabilten dau zerbitzu hau, baina orain arte Ugaora joan behar izaten eben Zeberiokoak.

ARTEA

Elexabeitiko saneamentua konpontzeko lanak hastear

Erredakzioa

Hileon hasiko dira Elexabeitiko saneamentua konpontzeko lanak. Elexabeitin hasi eta ur kolektoregaz lotzean dan lekuraino izango dira konponketa lanok. Aurrekontua 96.000 eurokoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak ipiniko dau diruaren % 80. Construcciones Morgari adjudikau jakoz lanok.

Elexabeitiko, herriko saneamentu sarerik zaharrena dala dino Alberto Etxebarria Arteako alkateak.



Elexabeitiko San Migel.


Argazki lehiaketeta:
bialdu zure argazkiak
begitu@topagunea.com
helbidera hilaren 25a
baino lehenago.

Sari ederra
eroan zeinke!!

ENPLEGUA ARRATIAN

Lehengo burrukak eta estrategia barriak enplegurako

Langabezia tasak ez dau behera egin gurean abuztuan. Kontrara, gora egin dau EAEn eta aurreko urteko abuztutik % 8,11 igo da. Bizkaian, abuztuan garagarrean baino 866 langabe gehiago egozan eta 97.149 langabera heldu da kopuru hori. Arratia, Ubide eta Zeberio 1.454 lagun dagoz erregistrata Lanbiden, lana topetako. Horreetako 1.010 lan barik eta besteak edo daukien lanpostua osotutako edo ordezkatzeko dagozanak, atzeritik itzuli diranak edo lehenengo enpleguaren bila dagozanak dira.



Arratia

Uzt.12	Abu.12	Ira.12	Urri.12	Aza.12	Abe.12	Urt.13	Ots.13	Mar.13	Apr.13	Mai.13	Eka.13	Uzt.13
2.000	2.078	2.105	2.154	2.208	2.192	2.284	2.294	2.324	2.352	2.324	2.261	2.221

Lan barik dagozanen erregistratutako eskatzaileen bilakaerea Arratian.

Erredakzioa

Lanbide publikutako zenbakiak adierazoten daben egoera latz honen aurrean, gizarteak betiko burrukak eta estrategia barriak ipini ditu martxan, enplegua sortu, lortu edo mantendutako.

Langabezia Arratian

Langabezia tasa asko handitu da urteotan eta enplegua urritu egin da sektore guztietan. Lanbide Arratia-Zornotza eremua erabilten dau eta hemen langabezia indizea % 13,1 da, Euskal Autonomiadun Erkidegokoa baino

bajuagoa, hau % 16,4koa da eta. Dana dala, Arratian be egoerak txarrera egin dau atzenengo urtean.

Lanbide Arratiagaz batera Zornotza eta Otxandio sartu ditu Arratia zonaldean eta kanpoan geratu da Zeberio. Abuztuko da-

tuak, barriz, herriz herri be emon ditu eta gure eremuko 10 herriak batuta, gitxiago ziran lan bila egozanak, 1455, hain zuzen be. Dana dala, urte honetan langabeziak izandako joerea adierazoteko balio dau.

Gizarte Segurantzako afiliatuen jagokonean be, aurtengo abuztuan Bizkaian aurreko urtearen aldean % 3,67 jaitsi da afiliatuen kopurua.

Langabezia edade eta sexua-
ren arabera

Edadeari jakokonean, (ikus lehenengo orriko grafikoa) atezinoia emoten dau asko dirala lan bila dagozan 45 urte baino gehiagoko arratiarrak. 579 hain zuzen be. Guztien % 40. Talde honetako jentek zailtasun bereziak ditu lana topetako eta langabezialdi luzea izaten dabe askotan. Alde batetik, enpresak ez ditue kontratatu gura izaten 45 urtetik gorako beharginak, beste alde batetik, honek ez daukie askotan gazteak dituen estrategiak: urte asko emonda lan baten, ez dabe eukiten hareek besteko malgutasuna lan moduak aldatzeko edo atzerria joateko. Lan merkadutik kanpo geratzeko arrisku handia dauka edade talde honek. Gainera, gehienetan ez daukie familiak emoten dauan babeserako sarea, eurak dira eta, gazteen babeserako sarea.

Hori gitxi balitz, erretirorako edadea atzeratzeak egoera la-

tzago ipinten deutse langabetu honeei, ze 45 urtetik 67 urte arte 22 urte dagoz ondino, eta prestazioak amaitutakoan, lan merkadutik kanpo egon ezker, pobrezian jausteko arriskua handitu egiten da. Arratian beharleku asko zarratu eta beharginak kale-ratu egin ditue. Lanpostu berean urte asko emondakoak tartean.

Andrazko gehiago dira lan eskatzaileen artean. 774 andra (% 53) dabiz lan bila eta 681 gizon (% 47). Eustat-en arabera, Bizkaian populazio aktiboaren % 54 gizonak dira eta % 46 andrak. Beraz, langabeziak gogorrago jotzen dituala andrak ondorioztatu daiteke.

Sektoreka

Arratia, Ubide eta Zeberioko gizarteak, gizarte garatua da eta holango gizarteetan gertatzen dan moduan enplegu gehien sortzean dauan sektorea zerbitzuak dira. Baina zerbitzuetan be, langabezia tasa handia dago eta lana bilatzen dabenen artean gehienak zerbitzuetako langileak dira. Lan bila dabizen gizonen % 44k bilatzen dabe zerbitzuetan, andren kasuan, % 77ra ailegatu da.

Enplegu suntsiketeari aurre egiteko estrategia desbardinak erabilten ditue sektore desbardinatutako beharginak lana lortu, sortu edo mantendutako.

Alkarranean oinarritutako es-
trategiak

Gurean, barrualdeko eremua izanda, Lehenengo Sektoreaz berba egiterakoan, nekazaritza eta artzaintzaz egiten dogu berba, hau da baserriaz. "Saso baten, Arratian beharrean egozanen % 80 inguru baserritik bizi ziran. Gaur egun inor gitxi. Zorionez autokontsumorako ortuak mante-

Langabezia tasa asko

handitu da urteotan eta enplegua urritu egin da sektore guztietan

HERRIKO BENTAK
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

expert ARRATIA
Edova
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE


OPEL
ibalgane, s. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMDA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

bbk

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

ARA OTZ
Landegian Jabetzen!

946 319 008
658 195 091
GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik janzen zaitu
Agirre Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es



nidu egin dira, haziak eta jakintzak gordez" dino Sonia Ingunza Igitie-koak. Atzenengo urteotan jente gaztea eta andrak erakarten ditu sektoreak. "Akaso, industrian lanik ez dagoala ikusita" Ingunza-ren ustez. Izan be, baserria sasoi barrietara egokitzen doa, eta asko dira horretarako Arratian egiten dabizen ekimenak. Baserritarrak batzean hasi dira, kooperatibak eta alkarteak sortuz. Igitie-k, Arratiako nekazari agroekologikoen alkarteak, urtebete daroa baserritarren defentsan eta ekimen interesgarriak egin ditu: astero antolatuen dau baserriko produktuen azokea Igorren, berbarako, edo lurren defentsarako taldea sortu barri dabe.

Erakundeak eta Udalak batez be, inpliketan hasi dira lehen sektorea bultzatzeko. Holan, lurraren garrantziaz jabetuta, Zeberioko Udalak Lur Funtsa bat sortzeako asmoa adierazo dau eta jardunaldi batzuk antolatu ditu, "Nekazaritza eredu barri baten bitartez, Zeberio bere sustrietatik indarbarritu eta gure herriko garapena sustatzeko".

Diman be, Udalak "bitartekaritzan lanak egiten dabil lur jaube eta lurra alokatu gura dabenen artean" dino Ingunzak.

Gastuak konpartiduteko kooperatibak; konsumo taldeak non produktuak zuzenean erosten jakiez ekozleai; espezializazioa: nekazaritza ekologikoa, gaztaia... edo dibersifikazioa: nekazaritza edo pastoretzaz gainera, turismoarako produktuak eskeintzea, eta abar; gehi udalen laguntza ausartak, dira Arratian Lehenengo Sektoreak erabili dauan estrategietako batzuk enplegua sortu eta mantenduteko.

Industriak kolpe larria

Industriak kolpe larria hartu dau atzenengo urteotan eta lanpostu asko desagertu dira sektore honetan. ELA sindikatuaren arabera 2008tik, enpresa honeek zarratu dabez ateak: Auxiliar Siderurgicak, Refineria Aluminio Igorrek, Laron-ek, Caldereria Bediak, Cheva-k, Hiruarte garraioak-ek, Montajes Industriales Mujicak, Plasticos Ormazabalek, Maderas Iruarizagak, Druckguss-ek eta Ebayk. Eta Alfus

FCC, Incoesa eta Prefabricados Lemonako beharginak gatazka gogorretan dagoz euren lanpostuak mantenduteko.

Enpresa honek egiten dabezan grebak eta mobilizazioak oihartzun handia daukie hedabideetan eta erakundeak eta gizartea orokorrean inplika egiten da burruka honeetan, sektore produktibo honek ekonomian daukan eraginaz jabetuta.

Enplegua mantenduteko burrukarik gogorrenetakoa sektore honetan, Cementos Lemonak kaleratutako beharginak barri hartzeako egin ebena da. Maiztean amaitu ziran zazpi hilabeteako mobilizazioak, tartean lau hile eta erdiko greba. "Lanaren egonkortasuna bermatzen" eban hitzarmena eta 16 kaleratuak euren lanpostuetara itzultzea lortu eben, "beharginen batasunari esker" enpresa batzordeko Jabi Amorrortu zanaren berbetan.

Zerbitzuetako beharginak, klase barri bat?

Zerbitzuetan, topau gura dabe beharra lan bila dabizen arratier gehienak. Izan be, zerbitzuak izenpean, lan mota asko eta desbardinak dagoz, tartean, ostalaritza, garbiketza, zaintza, merkataritza edo administratzenoko beharginak. Lan baldintzak be oso desbardinak dira eta ikerlari batzuen ustez, lan baldintzak



hobetuteko burrukan, zerbitzuetako beharginak industriako hartuko deuse lekukoa.

Juan Miguel Garcia Noguerolesek Bartzelonako unibersidadean (UAB) uda honetan defendidutako tesian gizarite maila barri bat sortu dala dino eta zerbitzuetako langileak industriako beharginari hartu deusele lekukoa burrukan. Izan be, zerbitzuetako beharginak "gehiago dira eta gizarite egiturari daukien papela garrantzitsuagoa da".

Garcia Noguerolesen tesiak 1999-2008 urteak ikertzen ditu. Honen arabera, gero eta terzia-izautako ekonomia garatuetan, industriako langile klaseak indarra galtzeako joerea dauka. Enplegu gehiena zerbitzuetan dago: bai kalidadeko enplegua, baita prekarioa be. Eta urte honeetan asko hazi dira ostalaritza, garbiketza, zaintza edo merkataritzako beharginak.

Zerbitzu klasea, barriz, behargin klase barria ei da hainbat ikerlariaren arabera. Zerbitzuetan lan guztiak prekarioak izan ez arren, bertan soldatarik bajuenak dago-

zala dino Noguerolesek eta bere ikerketaren arabera, % 70ek 1.000 euro baino gitxiago irabazten dabe hilean. Etorkezunean, behargin honek hasi daikie lan baldintza hobek eskatzeko burruka kolektiboa

Britaniar Soziologia Alkarteak gizarite klaseen sailkapen barri bat emon eban jakitera aprilean. Zazpi klase berezitu zituen, elitetik prekariatora (prekariatora: proletariado prekarioa).

Klase barri honek, burruka eta estrategia barriak garatu beharko ditu, enplegua sortzeako eta kalidadekoa izan daiten. Arratian, behar bako gehienak sektore honetan dabiz lan bila, lan bila dabizen gizonen % 44 eta andren % 77.

Arratian, enplegu honen aldeko estrategia batzuk ipini dira martan: merkatariek alkarte baten batu ziran aspaldi Igorren, AMEn hain zuzen be; eta erakundeak turismoari bultzada emoten saiatuten dira Gorbeialde Landa Garapenerako alkarteak sortutako produktu turistikoaren bidez, bi baino ez aitatutearren.



ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea

Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26

48330 Lemoa (Bizkaia)

www.alkizabal.net

alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00













• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

• Garraio zerbitzua.

PELOTEA

Pala eskeiniko dabe Pelota Eskolak neskak frontoietara erakarteko

Erredakzioa

Urtero lez, ikasturtea hasi ahala, badoaz neska-mutikoak frontoira hurreratzen pelotan ikasteko. Orain arte, eskeintzea batez be, eskupelotea izan da eta mutikoen artean erantzuna arrakastatsua izan arren, neska gitxi batzuk baino ez eben jokatu pelota modalidade honetan. Hori dala eta, eta neskak erakarteko pala eskolak hasi dira eskeintzen Arratiako pelota eskolak. Areatzan, Diman, Zeanurin eta Bedian daukie aukera hau pelotan jokatu gura daben neskak.

Areatzan, palan hasteko, 15 bat neskak emon dabe izena. "Igaz, Zeanurin hasi ziran neskentzako pala eskeintzen eta hemengo neska pare bat edo ibili zan han. Horregaitik aurten pala eskeintzea pentsau dogu" azaldu deutso BEGURI Jon Petralanda Areatzako Pelota Eskolakoak.

Dimako Txumuluxueta Pelota Alkarteak be nesken pala taldea sortu gura dau. Interesa daukien hilaren 23a baino lehenago emon behar dabe izena. Izan be, Txumu-

luxuetan, matrikulazioa urri lehenengoan da. "Orain arte eskuzko modalidadea baino ez dogu euki. Aurten aukera barria zabaldu dogu neskai begira. Eskuzkoan ez dirala apuntetan ikusi dogu, kasu bakarren batzuk euki doguz baina ez dabe jarraitzen, egia esan adin batera helduta eskupelota munduak ez dau asko lagunduten" dino Mauri Zapiko Txumuluxuetakoak.

Zeanurin, eskupelotan mutilak eta neska bakar batek jarduten dabe. "Igaz atera genduan pala eta neska guztiak, bat izan ezik, hara pasau dira. Momentuz, hamabi neskak emon dabe aurten izena palan" dino Luis Angel Erkiagak, Zeanuriko Eskolakoak.

Bediak ez dauka pelota eskolarik baina bai Bizkaiko Federazioagaz hitzarmen bat Teknikifikazio Eskolea egiteko. Pala eta eskupelota ikasi daitezke bertan eta pasadan kursoan 20 bat ume ibili ziran. Urri bigarrenean hasiko dira aurten be.

Torneoak

Eskolak izateaz gainera, pelota taldeak be badira eta eskola

sasoa amaitutakoan be pelotariak badaukie bertan jokatzeko segidutea. Emotza onak lortzean dabez gainera. Aurten, "Lemoako esku pelota taldeak 8 pelotari klasifikatu ditu federaduen mailako Bizkaiko buruz buruko txapelketara: kadete mailan bi, gazte mailan bat, 22 urtez azpiko mailan beste bat, senior bigarren mailan bat eta senior lehenengo mailan hiru" azaldu deutso BEGURI Aitor Erauzkin Lemoako Eskupelota Eskolakoak.

Igorreko Eskoleak be emotza onak izaten ditu torneoetan "entrenatzaileak pelotari profesional eta tituludunak dira, Imanol Agirre eta Izei Gomez, hain zuzen be. Ikasle barriak, besteen moduan entranau arren, lehenengo urtean ez dabe torneoetan parte hartuko, jokoak ikasi behar dabe eta. Baina besteak etxean jokatzeko dabe-nean, eurak be partiduak izango ditue" dino Joseba Gomez Igorreko Eskupelota Eskolakoak. Igorren eskupelota eta trinkete modalidadeak ikasi daitezke.

Pelota eskolak Arratia-Nerbioi E eta B torneoetan, herriko jaietako torneoetan, Bizkaia mailakoak eta Baque torneoan jokatzeko dabe beste batzuen artean. Hilaren 21ean hasiko da Arratia-Nerbioi Txapelketea eta bertan 13 herrik hartzean dabe parte.

Mutilak pelotea eta futbola

Arratiako mutikoak kirol bat aukeratzeko orduan, futbola dala gehienak aukeratzen dabena dino pelota eskolakoak. Mutilak helduak izan arte pelotan jokatu leikien arren, askok itxi egiten dabe lehenago. Areatzako pelota eskolan, esate baterako, 13 urte daukaz mutikorik zaharrenak. Dana dala, Igorren, Lemoan eta Zeanurin, barriz, 22 urtetik gorakoak badagoz. "Momentu kritiko bi dagoz. Bata eskolatik institutura pasatzen diranean eta bestea 16-17 urte dituenean" Erkiagaren arabera.

Neskak, barriz, kirolean aurrera egitea gatz euki dabe orain arte, kirol gehienetan neska talderik ez dalako egon, eta lehenago itxi dabe kirola.

SEGA

Astondoa sailkapenaren erdian geratu zan Europako Txapelketan



Irati Astondoa.

Erredakzioa

Irati Astondoa segalari zeanuriztarrak bere helburua bete eban, hilaren 8an Poblach-en (Tirol) jokatuako Europako Segura Txapelketan, sailkapenaren erdian geratuta. 40 neskak hartu eben parte norgehiagoka honetan eta Zeanurikoak 19. egin eban. Txapela Austriara joan zan.

Irati Astondoa Europako Segura Txapelketan Arratiako eta Bizkaiko ordezkari bakarra izan zan. Euskal Herriak, 15 segalari joan ziran, 5 andrazko eta 10 gizon eta posturik onenak Igor Esnaola eta Bixente Mi-

txelenak egin zituen, laugarrena eta seigarrena, hurrengo hurrengo.

"Nire helburua lehenengo 20ren barruan geratzea zan eta helburua bete neban. Pozik geratu nintzan egindako beharragaz, baina hurrengoan postua hobetu gura dot" azaldu deutso BEGURI Astondoa.

Hurrengo Azpeitian

Hurrengo Europako Txapelketea Euskal Herrian izango da, Azpeitian, hain zuzen be, urte bi barru. Segura txapelketa honetan, abiadura eta txukuntasuna neurtzen dira ebagitako kiloan ginetik.

AIZKOREA

Atutxak lehenengo jarraitzen dau

Irati Urien

Hilaren 8an Urdulizen egin zan norgehiagokan irabazi egin eban Aitzol Atutxak. Azpilikueta ordez Olasagasti aritu zan eta 21'21"eko denporan egin eban bere lana. Arratiarra aurreratu egin jakon osteran 20'14" gaz. Zazpigarren jardunaldi honen ostean jakon bardinduta doaz lehenengo

postuan Atutxa II.a eta Azpilikueta, biak zazpina puntugaz.

Bestalde, hilaren 13an, lehen postua lortu eban dimoztarrak Larrabetzun jokatu zan Bizkaiko Txapelketako kanporaketan. Aizkolaria Twitter kontuan lorpen horregaz sano pozik dagoala irakurri ahal izan dogu. Julen Mendieta eta Xabier Garcia "Utxu" arratiarrak be lortu dabe finalerako txartela.



Palariak Dimako frontoian.

indar
Instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

UMOR moda

sein
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnua: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

axular
kultur-aburto

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMITU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

BIZARGINAK
Ulea era klasiko
eta modernoan
ebagiten dogu

Bixarra egin eta
txukunduten dogu

Elexalde, 20 Rober • 630 743 543
48.140 Igorre Manuel • 661 848 793

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HUGAZZINEN
ASIGURUTAN

Salme Arana, 3. Floor, 94 673 71 41 • Fax: 94 673 71 41 • 48140 IGORRE

Pinturas Anaitia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

FUTBOLA

Beñat Etxebarria: "Nire ametsa Athleticen jokatzutea izan da txikitatik"

Beñat Etxebarria futbolari igorretarrak futbola eta Athletic maite dauan jente askoren ametsa beteteko aukerea izan dau. Athleticetik eta Betisek akordioa lortu eben bagilean eta hurrengo bost denporaldietan talde zuri-gorrian egoteko aukerea izango dau Beñatek. Futbolariak fitxaketaren eta denporaldi hasikerearen gorabeherak kontau deutzaz BEGITURI.

Ainhoa Duñabeitia

Lehenengo eta behin, zorianak. Urte guzti honeetan egindako lanak errekonpensea izan dau ezta?

Eskerrik asko. Bai urte luzeak eta gogorak izan dira niretzat. Gazte joan behar izan nintzan etxetik hemen ez ebelako nigaz kontetan. Lehenengo Cuenca aldera eta gero Sevillara, familia eta lagunak hemen itxi behar izan nebazan. Baina horrek gogortu ninduan eta asko ikasi neban, ez futboleak bakarrik persona moduan be.

Umetatik maite izan dozu kirola, esan daikegu baloi bat eskuetan jaio zinala? Eta futbolaraz aparte, fraka zuriakaz ikusi zaitugu eskupelotan...

Bai, kirola beti maite izan dot eta txikitik eskupelotan be jokatu izan dot, hemen Igorreko frontoian.

Urte gitxi egon nintzan baina bai, baloiagaz aparte pelotan be ibili naz.

Hamaika urtegaz hasi ziran Lezamara joaten, ume bat baino ez ziran eta ordurako familia zuri-gorriaren parte ziran...

Athleticeko kategoria guztietatik pasau nintzan lehenengo talde-
ra heldu arte. Hori 2006an izan zan, 19 urtegaz jokatu neban nire lehenengo partidua lehen talde-
gaz. Minutu batzuk baino ez ziran izan, baina ikaragarria izan zan niretzat.

Athleticegaz debuta egin eta gero, Conquensera eta hortik Sevillara joan behar izan ziran. Momentu gazi-gozaok, ezta?

Bai, Conquensera joan nintzan urte betez. Bilbora bueltau nintzan eta hemen esan eusten nigaz ez ebela kontetan eta Sevillara joan

nintzan. Bertan Betiseko bigarren taldean jokatu neban urte bete eta lehenengo taldeagaz hiru urte egin nituan aurtengo udara arte.



Beñat Etxebarria.

Denporaldi amaiera goraberratsua izango zan zuretzat, pil pilean egoalako zure etorkizuna.

Bai, joan-etorri handiko uda izan da. Guztien agotan egoan, ia non hasiko neban hurrengo denporaldia. Eta azkenean, bagila inguruan dei bat jaso neban Bilbo aldetik esaten nigaz kontetan ebela hurrengo proiekturako.

Duda barik baiezkoa emon neban, beste eskeintzai ezezkoa emonaz; txikitatik Athleticen jokatzutea nire ametsa izan dalako.

Eta deia jaso zenduan momentu horretan zer sentidu zenduan?

Poza baina aldi berean pena apur bat. Pozik etxera bueltetearren eta nire ametsa errealdade bihurtetearren; baina triste dana emon deustan talde bat itxearren. Betiseri esker naz nazan jokalaria.

Zer izan da zuretzako lau urte eta gero barrero be hasi ziran lekura bueltetea?

Ba egia esan danak bardin segiduten dau eta bertan dauan jentea ia danak lehengoak diranez, askoz be errazago egin jata taldera eta klubera egitea.

Eta aldageletako ambientea, zelan taldekide barriakaz?

Ba ekipokoakaz oso ondo, danak ezagutzen dodaz txikitatik, eta kategoria bajuagoetan batzuekaz egonda nago. Beste batzuekaz aldagela eta dana konpartidu dot eta orain beste baten moduan hartu nabe, beraz oso pozik.

Denporaldia be hasi dozue, partidua jokatu dozuz eta kamiseta zuri-gorria janzteko aukerea be izan dozu. Zer izan zan zuretzako Athleticetako elastikoa janztea?

Oso emozionantea izan da barrero be kolore zuri-gorriak janztea eta jentearen babesa sentidutea.

Hunkigarria izan zan etxetik kanpo jokatu genduan lehenengo partidua; bertara hurreratu ziran Athletic zale guztiai esker. Hori guk igarri genduan eta partidua emoitzen ikusi zan. Baina emozionanteena Anoetan jokatzuteko norgehiagokan bertara hurreratu zan jente pilo guztia, hori be guk antzeman genduan eta momentuz saikapenean hori transmitiduten gabiz eta espero dot danon artean hori lortutea.

MENDIA

Gorbeia Suzien Euskal Herriko mendi lasterketen Txapelketea eta martxea urri bigarrenaren 19an

Erredakzioa

Aurten bigarrenez Gorbeia Suzien egingo da Zeanurin urri bigarrenaren 19an. Lasterketa hau Euskal Herriko Txapelketea izango da aurten, eta punta-puntako korrikalariak hartuko dabe parte: Ionut Zinca igazko txapelduna, Silvia Serafini, Zigor Iturrieta, Miguel Caballero, Tofol Castanyer, Zaid Ait Malek, Hassan Ait Chaou, Javi Olabarria, Aritz Egea eta Leire Agirrezabal, besteak beste. Oihana Kortazar be parte hartzeakoa zan lasterketan baina lesino bategaitik ezin izango da Zeanurin egon. Lasterketeak 29 km. izango ditu eta 2.000 metroko desnibel positibo. Zeanurin hasi eta bertan amaituko da, kurutzetik pasau ostein.

Baina ez da lasterketa bakarrik izango. Martxea egiteko aukerea

be egongo da eta ibilbide bi izango ditu honek aukeran 29 km.koa eta 21ekoa. Honen guztia-
ren barri www.gorbeiasuzien.com helbide elektronikoa dago.

Aurten be lasterketea bultzatuteko helburuagaz, bideo promozionala sortu dau Suzien Mendi Kluba-k "Sentitu Gorbeiaren deiadara" mezuan oinarrituz. Hauxe da bideoaren loturea: http://www.youtube.com/watch?v=FWn_W49hc8c. Lasterketea ezeze, hiru eguneko egitarau zabala be antolatu dabe urri bigarrenaren 17tik 19ra arte.

Urri bigarrenak 17, eguena

19:30ean, mahai-ingurua Areatzako Udal Aretoan.

Gaia: Nutrizinoa eta kirola.

Parte-hartzaileak: Josean Lekue, Athleticetako medikua, Kepa Lizarraga, medikua, eta Jokin Lizeaga,



Ionut Zinca igazko irabazlea.

kirolari eta entrenatzailea. Moderatzaile beharretan: Eneko Iza kazetaria.

Urri bigarrenak 18, barikua
Dorsalak bananduko dira.

19:00etan, sarrera egitaraua: ongi-
gietorria eta ibilbidearen aurkez-
pena Aitor Elduaienen eskutik.

20:00etan Iker eta Eneko Pou

anaiak "20 urte mendi bertikale-
tan" ikusentzunezkoa aurkeztuko
dabe.

Urri bigarrenak 19, zapatua

06:30etik **08:00**etara, oinezkoen
inskrizioa. (Beteta ez badago).

07:00etatik **09:00**etara, lasterka-
rien dorsalak bananduko dira.

07:30etik **08:00**etara, martxea-
ren urtekerea.

09:15ean, lasterketearen urteke-
rea.

10:00etan, umeen martxea.

11:00etan, umeen jolasak, puz-
garriak, slackline eta abar.

13:30ean, sari banaketea eta
materialaren zozketea.

14:30ean, bazkaria.

16:30ean, slackline erakustaldia.

18:00etan, erromeria Aiko tal-
deagaz.

20:00etan, Igorreko BTKDA Ba-
tukadea.

Egunean zehar haurtzaindegi
zerbitzua, erakusmahaiak eta
bigarren eskuko mendi material
azokea egongo da. Baita masaje
gunea lasterkari eta ibiltarientzat.

Parte hartu gura izan ezke-
ro, sartu www.gorbeiasuzien.com
helbidean eta emon izena
lasterketa edo martxan. Martxa
egin gura izan ezke, egunean
berean be emon ahal izango da
izena 475 personako kopurua
bete ez bada aurrezdik behintzat.

Antolakuntzakoak gogora ara-
zo gura dabe lasterketea ezeze
martxea egiteko aukerea be ba-
dagoala "jente askok pentsetan
dau Gorbeia Suzien lasterketea
baino ez dala baina martxea egi-
tea be badago, luzea 29 km.koa
edo laburra 21ekoa" dinoe anto-
latzaileak.

MEMORIA HISTORIKOA

Mikel Garcia: "Sei lubaki topau doguz eta horreek berreskuratu gura doguz"

Mikel Garcia.

Erredakzinoa

Udan herrialde askotako gazteak etorri ziran Lemoara, gerrako lubakiak berreskuratzera eta bertako ermitea aterpe bihurtzeko lanak egitera, Eusko Jaurlaritzako Auzolan-degiak programaren bitartez. Mikel Garcia, Lemoako Udaleko Gazte teknikariak eta Lemoatx 1937 taldeko partaideak egin dau lan honeen balorazioa.

Lubakiai jagokienean, aurreikusitako lana amaitu da?

Aurreikusitako lana bai, baina oraindino gauza asko dagoz Lemoatxen egiteko, momentuz beste sei lubaki topau doguz eta horreek be berreskuratu gura doguz. Egindako lanagaz sano gustora geratu gara, lubaki garrantzitsu bat berreskuratu dogu eta oso argi ikusten da zelakoak ziran eta zertarako erabilten ziran.

Lubakia berreskuratzea me-**moria errekuiperetako bultzadea izan da? Informazio garrantzitsurik topau dozue?**

Momentuz, alkarrizketak egiten gabiz. Astiro-astiro goaz baina eritmoa galdu barik. Guda bizi izan eban hainbat personagaz batu gara eta aurrerantzean gehiagogaz batuko gara. Gerrea Lemoatxen bertan igaro eban personaren bat be topau dogu eta gehiago topau guran gabiz. Informazioa dala eta, gauza deigarri batzuk entzun doguz baina ikerketakaz jarraitu beharra daukagu informazio horreek baieztatzeko. Oraindino ez daukagu oso argi zer egin, dakigun gauza bakarra da herriari informazioa plazaratu egingo deusagula. Hainbat gauza daukaguz buruan, baina oraindino ezer finkorik ez (erakusketea, eskuorriak, eta abar).

Aranzadik txosten bat pasauko deutso Lemoatx 1937 batzordeari ikerketaren ondoriokaz?

Printzipioz Aranzadigaz batera gabiz beharrean. Ez dogu ezelangotostenen inguruan berbarik egin. Informazio bilaketa bat egiteko eta informazio hori lortzeko lanean gabiz eurakaz batera.

Lehenago aitatu izan dodan moduan egindako lana aurkeztu egingo da. Dana dala, orain alkarrizketari emongo deutsegu garrantzia eta denporea aurrera joan ahal beste pausu batzuk emongo doguz.

Aterpeari jagokonean zelan dagoz lanak? Amaitu dira?

Auzolan-degietan egin beharreko lana, behar zan moduan egin zan. Bigarren pausua emoteko Udala Ganzabal Mendi Taldeagaz batuko da, egin ahal diran gauzak aztertzeko eta patxadazko gauza bat egiteko. Erabilera egoki bat emon behar joko, gaur egunerarte erabilera desegokia emoteaz gain, egoera txarrean egon dalako.

Falta dana egiteko auzolana deituko da? Noz izango da deialdia?

Bai, espero dogu gauza gehiago auzolanaren bitartez egitea. Orain arte egin dogunak erantzun ezin hobea izan dau eta Lemoatx 1937 batzordetik eta udaletik oso pozik gagoz egindako lana dala eta.

Komentatzekoa da, Udalak memoria historikoa errekuiperetako apustu gogorra egin dauala, eta batzordeagaz batera ekintza batzuk antolatuko dauzala hori aurrera eroateko.

Printzipioz, eta antolatzaile guztiak ago batez eskerrak emon gura deutseguz gure ekintzetan parte hartu daben persona guztiak. Gure ustetan herriariko oso garrantzitsua da lan hau egitea eta horrela jarraitu ezker emoitza bikainak lortuko doguz. Batzarrak zein auzolanak zabalak dira eta laguntzeko prest dagoan edonor etorri ahal da, guk pozik hartuko doguz danak eta.

IRAKURLE KLUBA

Jon Alonso Bediako Irakurle Klubean**Erredakzinoa**

Hilaren 25ean, Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan* (2012, Txalaparta) eleberria egileagaz komentauko dabe hurreratzen diranak. Helduen txandea da oraingoan, baina Bediako Irakurle Kluba Umeen Kluba be dauka martxan igaztik.


Zintzoen saldoan nobelearen protagonista Enekoitz Ramirez da, "Lanbas", ETAKidea izandakoa, preso izandakoa eta arte saleroslea izandakoa eta gaur egun, lapurra dana. Holango baten, euskal sukaldaritzaren etorkizuna dan Kepa Pedrotegi hil egiten dabe eta Enekoitz leporatzen deusie hilke-tea, gau haretan bertan egoalako afaltzen. Salaketa horretaz libretako abogadu, sukaldaritzak kritiko, polizia eta beste batzuek nahastuko da Enekoitz Ramirez. Oraingoan, baina, "zintzoen" aldean.

Kritika Saria

Jon Alonso (Iruñea, 1958) idazlea

eta itzultzailea da. 2006an, *Erretzaileen eremua* lanagaitik Espainiako Kritika Saria jaso eban. 2007an Argia aldizkarian "Euskadi Sariak" artikulua idatzi eban, Utikan Euskadi Sariak agiriaren pizgarria izan zana.

Bere beste lan batzuk, *Katebegi galdua* (1995), *Hodei berdeak* (2003) eta *Erretzaileen eremua* (2006) dira.



EUSKAL JAIA

Areatzan Euskal Jaia prest**Erredakzinoa**

Euskal Ezkontza gaitzat hartuta, urri bigarrenaren 5ean Areatzako Euskal Jaiaren VI. edizioa ospatuko da Udalak antolatuta. Goizeko 11:00etatik aurrera, azokea egongo da eta orain 200 urteko

ezkontza antzeztuko dabe areatzaizarrak. Aurreko urteetan legez, antolatzaileak herriarrik euskal jantzi tradizionolak janztera eta egingo dan argazkian parte hartzera animau gura dabez. Bazkari-rako txartelak, herriko tabernetan egongo dira salgai.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparitutoko deusazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDA

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



IKASTAROAK

Ikasturtean mobidu egiten dira arratiarrak, zentzurik zabalenean

Erredakzioa

Artean ehun lagunetik gora dira Udalak antolatutako ikastaroetan parte hartzean dabena, herritarren % 12 alkatearen esanetan. Zeberion, "edadekoak etetik urteteko motibazio bat eukiteko" ikastaroak antolatzeko premia ikusi eben Gizarte Batzordean. Adibide bi honek erakusten dabe ikastarook aisialdia pasetako zerbaist baino gehiago dirala, gorputza, burua, sormena eta sozializazioa bultzateko tresnak be badira eta.

Arantzazun, herritarrak eurak eskatutakoak

Arantzazun, herritarrak eurak ikastaroak eskatzeko aukerea izan eben hilaren 13ra arte. Ikastaro honek, Udalak proposatutakoak gehituko jakiez. Udalaren proposamena, Eskulanak, Musikea, Pilates, Berbalagun, Yoga, Euskal Jantzak eta Sukaldaritza dira. Dana dala, gitxienez 6 lagunek emon behar dabe izena, ikastaro bat aurrera aterateko.

Artean, partaidetza handia

Ehun lagunetik gora dirala parte hartzean dabena ikastarootan, zortzirehun inguruko herri baten, dino Arteko alkateak. Eskeintzen



diran ikastaroak, Yoga, Aerobik, Pilates, 3. Adinekoentzako gimnasia, Arte Apliak, Pintura eta Eskulanak dira. Talde bat aurrera erroteko 8 lagunetik gora apuntatu behar dira.

Diman, eskolaz kanpokoak

Diman, Yoga, Eskulanak eta Pilates klasikoaz gainera, Inglesa eskeintzen dabe. Ume eta nagusientzako taldeak egiteko eskeintza dago. Bost lagunetik gora behar izango dira taldea osotuteko eskola umeentzat, institutukoentzat eta nagusientzako eskolak eskeintzen dira.

Igorren, eskeintza berezia

Igorren eskeintza berezia eta zabala dago, ondo pasetako eta

edade guztietakoak zuzenduta. Tai Chi, Jantza afrikarrak, Literatura txokoa, Akrobazia aereoak (7 urtetik gorako umeentzat), Gazteentzako laburmetraje ikastaroa, Gazteentzako (14-30 urte) akrobazia aereoak, Zeramikea, Argazkigintza/Fotografia eta Photoshop egin daiteke Igorreko Kultur Etxean.

Bardintasun sailak antolatutako "Ate azpitik sartzen uzten dugu biolentzia" ikastaroa be egin ahal izango da lehenengo hiruhileko honetan.

Zeanurin, gorputza eta burua jagoten

Taldeak osatu ezker, honek dira Zeanurin egin ahal izango diran ikastaroak: Gimnasia, Yoga, Pilates, Pintura, Jantzak eta Psikologia.

Zeberion, kalera urteten animetako

Ikastaro bi eskeintzen dituela, jakinarazo eban Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak. Lehenengoaren, 60 urtetik gorakoentzako gimnasiaren helburua "edadeagaz sortzean diran arazoak ebitea eta nagusiak etetik urtetako motibazio bat eukitea da".

Eta andrak erakarteko, altzariak zaharbarritzea eta Eskulan ikastaroa eskeintzen dabe.

JANTZEA

Arantzarte jantza taldean izena emoteko epea zabalik dago



Arantzarte jantza taldekoak.

Erredakzioa

Orain arte, Arantzarte Jantza Taldeagaz euskal jantzak ikasteko aukerea urtailetik aurrera izaten bazan be, aurtentzen, izena emoteko epea ikasturteagaz batera zabaldu gura izan dabe.

Nagusien taldeko ensaioak hasita dagoz eta taldea zabalik dago izena emon gura dauan edono-

rentzat. Plaza jantza ikastaroa urri bigarrenaren 2an hasiko da eta horretarako batzarra hilaren 25ean izango da Igorreko Kultur Etxean (IKE) arrastiko zortziretan.

Umeak be emon daikie izena eta taldea egiteko batzarra hilaren 23an izango da, arrastiko 18:00etan, IKEn. Ensaioak hilaren 30ean hasiko ditue.

FISIOTERAPIA

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kaltetueko, herrikoia

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilengoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY
TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

Euskara praktikoa

Arratiako Kubulu AEK euskaltegia

Agirre lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 arratia@aek.org

Maila eta ordutegi guztiak.
Titulu ofizialak.

AGENDEA

**URRI LEHENENGOAK 18
LEMOA**

18:30ean, Monika Salgueiro Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen baldia: "Dolor Cronico". Jubiladuen Etxean.

**URRI LEHENENGOAK 20
LEMOA**

19:00etan Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta *stretching* saioa, Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEBERIO

17:00etan, Unai Arangurenen baldia (EHNE) "Zelan hasi autoenplegu proiektu bat landa eremuan". Plazako ermitan.

**URRI LEHENENGOAK 21
ARTEA**

10:00etatik 15:00etara, MerkArtea, XX. Janari eta Artisau Azokea. 21:30ean, Gontzal Mendibil plazan. 23:00etan, erromeria plazan.

IGORRE

Inbiu 2013. 12:00etan Igorre Kantari grabazioaren aurkezpena Lasarte aretoan. 13:30ean kopautxo. 14:30ean herri bazkaria. 16:00etan kantu saioa. 18:00etan erromeria, Jokaldigaz AMEK antolatuta. 20:00etan txokolata BEINKE Merkatarien Euskera Taldearen eskutik.

ZEANURI

09:30ean, Arratiako Ibaiertzetatik IV. Marxa Zeanuri-Bedia.

Uribeko San Migel jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ZEBERIO

11:00etan, "Gaurko baseritarren proiektu barriak" mahai-ingurua. Plazako ermitan.

**URRI LEHENENGOAK 22
BEDIA**

Kotxe bako eguna. 10:30ean, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan. 11:30etik 13:30era, txirriinduen oinarriko konponketa tailerra. 13:30ean, partaideen artean bizikleta bat zozketatuko da.

DIMA

15:30ean, *Slalom*-a eskola inguruan.

**URRI LEHENENGOAK 24
BEDIA**

17:00etan, Liburutegian tailerra: Argazki markoa.

**URRI LEHENENGOAK 25
BEDIA**

19:00etan, Irakurle Kluba. Jon Alonso egongo da *Zintzoen saldoan* liburua gainean berba egiteko.

**URRI LEHENENGOAK 26
IGORRE**

16:00etan, Gizonezkoak eta Bardintasan tailerra. Arratiako Udalen Mankomunitatean.

**URRI LEHENENGOAK 27
IGORRE**

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Txirritaren baldia "Slackline".

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

**URRI LEHENENGOAK 28
AREATZA**

Parketeak antolatuta "Areatzako gune historikoa ezagutzen", Mikel Urrizen eskutik.

DIMA

09:00etan, Zubien garbiketea auzolanean. Bakotzak bere erremintea eroan behar dau. Plazan.

19:30ean Axpe Goikoaren berriaurazina. Andra Mari Dantza Taldea, herri kirolak eta bertsolariak. Osteen afaria.

23:00etan umorea Taberna Barrin. Boca

Independentisten bazkaria Zeberion

Hilaren 21ean, Arratia-Nerbioiko independentistak bazkaria izango dabe Zeberion. Menua berakatz zopea, txerri errea eta kafe budina izango da, 15 euroren truke. Bazkalarretik, 12:30ean ekitaldi independentista eta 13:30ean kalejira berdea egingo dabe. Bazkarirako tiketak Ermita-barri tabernan eta herriko dendan dagoz salgai.

Beats-en eskutik bakarriketea + *beatbox*.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako Mendiak eta herriak: Lemoa-Igorre. 11. zeharkaldia.

ZEANURI

10:00etatik 14:00etara, Graffiti tailerra 12-18 urtekoentzat.

**URRI LEHENENGOAK 29
ARTEA**

11:30ean mezea San Migel ermitan. Osteen, barauskarria.

IGORRE

San Migel jaiak Garben.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekera Peña-ra (1.070 m).

ZEANURI

San Migel Altzutan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

MODULOAL SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

PISUAL SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

DANERIK**DESBROZADOREA BEHAR DOGU**

Baten batek erabili barik badauka ipini

kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekatuarte@gmail.com.

AREATZAN ETXEA ALOKAIRUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairuko: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

BIZIKLETEA EROSI GURA DOT

Bizikleta estatiko plegablea erosi gura dot. 615 783 915.

INGELESZKO ESKOLAK

Ingeleszko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoak (3 botila).

Edurne Landajo (Zeanuri)



2 2102ko Gorbeia Suzien mendi-lasterketako kamiseteta.

Harrietarrak GA (Lemoa) Leire Orue (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Olgeta. Berrogeta hamar erromatar. 2.- Uranioa. Zurrut egin. 3.- Bor-bor egin. 4.- Arsenikoaren sinboloa. Umeen berbetan, ardia edo behia. 5.- Bizia galdu. Birritan, distiraren onomatopeia. 6.- Garaua. Birritan, korotza. 7.- Zugatzetako kimu barria. 8.- Azpiko gona. Boroa. 9.- Erdiko bokala. Jarleku.

GOITIK BEHERA

1.- Birritan, barre egitearen onomatopeia. Gaitasun. 2.- Oxigenoa. Berba egin barik. 3.- Pinu. Inozoa. 4.- Edade. Ulertu. 5.- Barru. Birritan, bor-bor. 6.- Landarearen begia. Konsonantea. 7.- Ze lekutara? Parea.



Topau Aspe enpresako zazpi pelotari.



AKIMIKO

Aitziber

Udazkena heldu da!! gogokoen dudan urtaroa! hostoak haizearen ferekarekin dantzan egiten dute basoa kolore beiegiz, laranja eta gorritz, betetzen da, kanpoan euria, etxe barruan epel epeletan, lain...



...Athletic!, Granjero busca esposa!, Nadal! mujeres, hombres y viceps y berzas! el mentalista!, salvame delux!...



zegaitik egon beha da beti batenbat nire arrapari hiltzaile sena pizten dauena?



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nugar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, 3-48330 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 481830 Fax. 609 290717

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

***KIRRU* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-34

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialedea E-3 Pabeloia (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unda@euskalnet.net

URTZA SARRIONANDIA

"Bertako produktua bertan konsumidu behar da: janleketan, tabernetan..."

Astelehenetik domekara eta goizetik gaubera ibiltzen da beharrean Urtza Sarrionandia. Astebarruan irakaskuntzan egiten dau lan goizez; arrasti eta astegoienetan, ostera, nekazaritzan. Ezagun da bere aurpegi aparteko ilusino sortuten deusala baserriko lanak. Amaren eta bere artean esplotazio bi daukiez. Batez be sagarretara dediketan da gaztea. Momentu honetan 37 klase daukazala kontau deutso BEGITURI, baita batzuk erakutsi be. Halanda be, baserrian ez jakoz falta oiloak, mahatsa zein bestelakoak. Orain hektarea kiwi bi ipini barri dauz. Beste bizimodu eta elikadura eredu baten alde apustu egiten dauan Igitie taldeko partaidea da Igorrekoa, eta ateraten dauan genero agroekologikoa plazarik plaza daroa. Zapatuan gure azoketako baten topauko dogu, MerkArtean.

Irati Urien

Ze nekazaritza eredu darabizue?

Ekologikorantza goaz, agroekologikorantza hobeto esanda, ez da bardina eta. Ekologikoa azken baten apur bat indibiduala da eta bestea kolektiboa, zabaldu egiten da. Bizimodu osoa da planteetan dana, biziteko errea be bai: alkarrerri lagunduten deusagu, auzolanak antolatuten doguz, kooperatibak, hartu-emonak daukaguz... ez gagoz bakarrik.

Hasikeratik euki dozu argi eredu hori zein izango zan?

Bai. Azken baten, Euskal Herrian egon dan eredu izan da auzokoak behar egitea, auzokoari lagundutea, norberak laguntasuna behar dauanean auzokoa norberagana etortea... eta hori atzenengo urteetan galtzean ibili da, indibidualismora joan gara apurka-apurka. Zorionez barriro aldaketa hori egon da, jentea

konturatu da ez gagozala bakarrik alkarrerri lagundu behar deusagula.

Familiak eragina eukiko eban zuk mundu honetan segiduteko.

Bai. Aitaren aldekoak frutara dediketan ziran eta plazea betidanik ezagutu dabe. Gure etxean igual ez da plazea ezagutu baina soloa eta nekazaritza bai. Halanda be, baserri baten bizi zeintek ez eta baserria gustau ez, baina nire suertea da gustau egiten jatala.

Ze sagar klase daukazuz?

Euskal Herrian sagar klase ugari dagoz. Guk 37 daukaguz. Jentek identifiketan dauan bakarra goldena, errege-sagar batzuk eta gran smith-a dira. Pena bat da antxinako izenak eta arbolak diralako, eta hori danori galtzean dabil. Gu apur bat errekupeaur guran gabiz, izan be guk ez badoguz mantenduten, nok mantenduko dauz? Honeek daukaguz etxean: errege-sagar grisa, zuria

eta gorria, Euskal Herriko errege-sagarra, kardinala, limoi-sagarra, kana-sagarra, urtebetea, urdin-sagarra, bella bosko, fuji, miru-sagarra, rosalisa...

Non erosi leitekez zure produktuak?

Dendea daukagu eta jente asko dendara etortzen da zuzenean, amarenera. Beste batzuk etxera etortzen jakuz dendatik pasau barrik. Gehien salduten dogun lekua ostera azokak dira.

Jentek herriko generoa erosteko apustua egiten dau?

Bai, gero eta gehiago eta batez be gazteak. Hor momentu bat egon da galdu egin dala, edo hori izan da nire sensazioa behintzat, eta orain barriro agroekologiaren kontu honegaz beste mobimentu bat hasi da, gazteak gehiago baloretan dabe. Askotan arazoa prezioa izaten da, baina atzenean jentea konturatu da guk bizimodu duin bat izateko dendako prezioa baino gehiago pagau behar dala. Generoa ezagututen dauanak eta ze produktu erosten dauan darianak prest egoten da gehiago pagetako.

Arratiako Igitie talde agroekologikoa zagoz. Positibotzat jotzen dozu beronen sorrerea?

Bai, sasioa izan da. Poztuteko gauza bat da. Gu momentu batzuetan munduan bakarrik sentidu gara. Problema bat euki ezker, ez dogu euki nora jo eta orain talde honegaz informazio trukaketa bat dago, babes bat dago, Igorreko azokea egiten hasi da zapaturo... Oso positiboa dan mobimientu bat hasi da.

Astegoi guztiak okupata eukiko dozuz azokakaz.

Bai. Batez be, garagarri amaieran hasi eta abendura arte astegoienero zapatu eta domeka guztietan. Batzuetan gainera bi eta hiru feria dagoz.

MerkArtean zeure postutxo presente egongo da betiko lez. Kuriosidadez, zenbatean topauko dogu sagar kilo?

1,50etik 2,25era baina normalean erabilten dodan prezioa sagar gehienetan 1,90 izaten da. Bardin kobretan dogu azoketan nahiz etxera erosten etorri ezker. Askotan pentsetan dau jenteak etxera etorri merkeago topauko dituala bai-



na atzenean gure generoari prezio bat ipinten deusagu eta ez dogu kanbietan. Lehen "regateoan" jausten ginan baina gero konturatu ginan gure kalterako zala.

Instituzino aldetik zelangoa da zuenganako jarrera gaur egun?

Nahiz eta laguntzak egon nik ez dot babesik ikusten inondik be ez. Norbera mobidu behar da, burrukan egin behar da. Orain dala zortzi urte inguru esplotazioa ipinten ahalegindu nintzan eta konturatu nintzan ni bakarrik mobidu behar nintzala baztar guztietara: instituzinoetara, diputazinora, batera eta bestera. Horretatik aparte gainera hasikeran egin behar dan inbersino ekonomikoa astakeria bat da. Ez badaukazu arinagotik dirua aurreratuta ezin zara ezertan be hasi. Gero bankuetara zoaz eta bankuak be beti pegak, ez dabe laguntzarik emoten eta orduantxe be bakarrik sentiduten zara. Oso

gatz dago kontua. Guk atzenean lortu dogu baina bai nire bikotea eta bai ni biok kanpoan gabizelako beharrean, ostean hau ez litzateke erreala izango.

Planteau dozu inoz irakaskuntzea itxi eta nekazaritza bizitea?

Posible bada bai. Momentu honetan ez, izan be generoa saldu salduten dogu baina biziteko beste ez. Adibidez kiwia aurten ipini dogu baina hiru urte barrura arte ez dau ezer emongo. Horregaitik beste diru iturri bat behar dogu. Auzokoak edo lagunak inoz esan deuste "zelan sartu zara holako gauza baten, daukazun lana eukita eta ondo bizi ahal zaranean"; baina niretzat hori ez da ondo bizitea, hau da ondo bizitea. Atzenean behar gehiago egiten dogu, sakrifizioa askoz be handiagoa da baina gero saria be askoz handiagoa da. Ezin da konparau kanpoan behar egitea edo baserrian behar egitea.



INBIU 2013

arratiako merkatarien elkartea

JOKALDI

18:30etan - Irailaren 21ean - KULTUR ETXEKO PLAZAN (IGORRE)

IGORREN EROSI





